

# Noqua!!!

H A M A B O S T E K A R I A

1998ko uztaillak 17 III. urtea

Usurbil, 47. Zenbakia

***Astebeteko Santioak  
Zubietan***



## Txerrimunik ordainetan



Kaixo, kaixo... zorionak **Maite!** Uztailaren 26an pote batzuk hartuko dizkiñau hire kontura. Segi beti bezain alai. Hire lagunak.



Zorionak **Margari!** Ekainaren 10ean zure urtebetetze eguna izan zen eta berandu bada ere orain zoriontzen zaitugu. Zure ahizpak eta ilobak.



Zorionak **Presenta "hankaplako"**. Uztailaren 1ean 47 urte bete zenituen eta ondo pasako zenuela espero dugu. 47 tiradizo etxekoan partez.



Zorionak **Mirentxu**. Uztailaren 5ean zure urteak zirenez muxu handi bat. Segi fundamentu horrekin poxpolin. Etxekoak.



Zorionak **amona Domi**. Uztailaren 25ean urteak beteko dituzenez ondo pasa eta jarraitu beti bezain guapa. Urte askotan, billobak eta etxekoak.



**Aloña Azpiroz**, zorionak uztailaren 13ko partez etxekoan partetik. Ah, eta kontuz datorren urtean, "martes y trece" tokatuko da eta.



Zorionak **Eñaut**. Uztailaren 20an 6 urte beteko dituzu. Segi orain bezain jator. Etxekoak.



Zorionak **Ane Sagardia!** Uztailaren 2a ahaztu ezinezko eguna izan zen, ez Santixabel eguna zelako zuk 12 urte bete zenituelako baizik, Muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak **Eli Goikoetxea Roteta**. Uztailaren 3an ondo pasako zenuen ezta? Espero dugu baietz. Bi muxu etxekoan eta amonaren partez.



Zorionak **Juan Martin Errasti!** Nahiz eta uztailaren 13a etxetik kanpora pasa, zutaz gogoratzen gara. Muxu pila bat Peñaloscintos aldera etxekoan partez.



Zorionak **Itziar Ikutza**. Uztailaren 12an izan zen zure urtebetetze eguna. Hemendik doazkizu mila muxu. Zure senide eta lagun guztien partez.



Urteaskoan **Igone** San Fermin eguneko partez, **Nerea Uribe** eta **Andoni "etxetxok"** berriz, uztailaren 13an 21 urte bete zituzten. Ea zuek bezain pottokoak bihurtzen garen zuek gonbidatutako afariarekin!! Zuen lagunak.



Batak 13an eta besteak 15ean. Zenbat? Puff...Zorionak **Jimenezta Puri** eta **Mario**. Igandean zuen kontura eh? Behekoak



Zorionak **Mertxe Aizpurua** eta **Andoni Murgari**. Uztailaren 17an Madrilen ezkontzen baitzarete. Bertan elkar ikusiko dugu? Zuen hilotak Unai, Ander eta Xuban.



Zorionak **Ana**. Uztailaren 2an izan ziren zure urteak. Etxekoak ez gara ahaztu. Muxu pila bat.

**Hurrengo alea: uztailaren 30ean Agurrak ekartzeko epea: uztailaren 24a**

## Hildakoak



1998-06-25  
**Josefa Lizaso Salsamendi**  
85 urte  
Aginaga



1998-07-08  
**Joxe Aginaga Begiristain**  
77 urte  
Txokoalde



1998-06-29  
**Fermin Roteta Labaka**  
72 urte  
San Esteban



1998-07-05  
**Xanti Añorga Mendizabal**  
87 urte  
Txokoalde

1998-07-02  
**Maria Bengoetxea Esnal**  
77 urte  
Kalezar

## Jaiotzak

**Alba Guerra Gorgojo**  
(1998-06-25)  
Olarriondo

**Amaia Arruti Lizaso**  
(1998-07-06)  
Santuenea



# Zer irizten?

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkartea  
Kale Nagusia, 37  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21  
E-mail: noaua@topagunea.jalgi.com  
Web orria: <http://www.jalgi.com/topagunea/noaua>

**Zuzendaria**

Olatz Altuna

**Kazetariak**

Ainhoa Azpiroz, Idoia Torregarai,  
Josu Aranberri, Garikoitz Udabe

**Kolaboratzaileak**

Pedro Mari Matxain, Ines Kamino,  
Leire Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe  
Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier  
Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal,  
Nieves Aranburu, Luis Aranalde,  
Zalao Arnaz, Maribi Arrospide,  
Agurtzane Solabarrieta, Joseba  
Pellejero, Joxe Aginaga, Ainara  
Uribe, Eider Jauregi, Olatz Leoz,  
Agustin Esnaola, Izaskun Zubiria,  
Olatz Goenaga, Izaro Aizpurua,  
Joxe Loidi, Begoña Arriaga, Urko  
Manterola eta Joxe Torregaray.

**Administrazioa**

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta  
Nerea Kamino.

**Erredakzio Kontseilua:**

Olatz Altuna, Garikoitz Udabe, Jose  
Jabier Furundarena, Iñigo Azpiroz,  
Idoia Torregarai, Josu Aranberri,  
Ainhoa Azpiroz.

**Maketazioa eta diseinua**

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz  
Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

**Dokumentazioa**

Idoia Agirre eta Aintzane Aizpurua

**Informatika**

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

**Banaketa**

Mertxe Jimenez, Txelo Vidal eta Iker  
Muguruza

**Elektrikaria**

Iñaki Salsamendi

**Sukaldaria**

Joxe Mari Sarasola

**Tirada:** 2.300 ale


**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818

**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunik.

Azala: Santixabel jaiak



## Loditasuna, obesitatea

**Gorka Aierbe**

Dietista eta enfermeritzan lizentziatua

**A**zken urteetan telebistan erakusten zaizkigun gorputz lirainetatik urrun, loditasuna gaixotasun garrantzitsua bihurtu da. 25 eta 60 urte bitarteko pertsonen %13ak loditasunaren gaixotasuna dute. Zer da loditasuna? Gorputzeko grasa behar baino gehiago biltzen da pisua ere gehituaz

Joan den urteko datuen arabera gizonezkoen %11,5 eta emakumezkoen %15,2ak gaixotasun hau jasaten dute. Askotan konturatzen ez bagara ere, adituen ustez loditasunak ondorio txarrak ekarri ditzake: alde batetik bizi itxaropena gutxitzen da eta beste aldetik beste gaixotasunak izateko aukerak areagotu egin daitezke: artritis eta bizkarrezurreko lesioak izateko arrisku handiagoa izaten dute loditasun handia duten pertsonak. Horrez gain, gehiegizko pisuak odoleko kolesterolaren handitzen du.

Gizentasunaren jatorria aztertzea oso lan konplexua da. Zergatik loditzen gara hainbeste? Egungo gizartearen garapenak zerikusi handia du honetan. Gero eta okerrago jaten da gaur egungo gizartearen, gero eta okerrago

eta honekin batera ariketa fisikoko gero eta gutxiago egiten da, honetarako ez baita behar besteko denbora hartzen.

Hala ere, herentzia genetikoan ere zerikusi handia du gaixotasun honetan. Loditasun herentzia duen pertsonak gaixotasun hau izateko aukera gehiago izango ditu beti. Azken finean, umetan lodiak izaten direnak, zahartzean, helduak bihurtzean, lodiak izateko aukera ugari izango dituzte, lodiak izango dira gehiengotzat. Honi, alderdi psikologikoa gehitu behar zaio. Askotan, pertsona askok ezin izaten diote jateari utzi, edozein momentutan zerbait jan behar izaten dute. Honek obesitatea dakar.

Loditasuna tratatzea ez da erraza. Gaixotasun hau sendatzeko ezin dira botikak erabili. Kirurgia ere ez da konponbide aproposa. Bide hau hartzen duenak, operatu ondoren loditasuna kontrolatzeko tratamendu gogorra eraman behar izaten da zenbait urtetan. Onena dietisten eskuetan jartzea izaten da. Adituek dieta orekatu bat jartzen dute, bakoitzak dituen ezaugarrietara bideratutako dieta egokia hain zuzen ere.



Usurbilgo Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herra!



## Zipaio espainolak zirela eta...

G.H. "izenekoak" dei egin zion herriko Alkateari aurrekoan, hor-mak zikinak zeudela eta, mar-gotzeko "zikintzeko" baimenik eman ez zezan, nonbait. Ez naiz ni Usurbilgoa, ez Alkatea. Ez eta isilik geratzekoa ere.

Euskal Herria hainbat gauza desberdin izan daiteke, nork ikusten duenaren arabera? Euskal herritarren jaiolekua, enpresa multinazional batzuen negozio-alorra, sanferminak gozatzeko toki aparta, hondakin nuklearrak lurperatzeko toki aproposa, etab.

Konforme egongo zara, behintzat, oinarritzko kontzeptuan: izena eta izana; ezagutzen ez denik ez da egiaz existitzen. Komunikabideek ixiltzen dutena ez da munduan. Komunikabideek Euskal Herriaz ikaragarri haundituta ematen dutena, berriz, izango da Euskal Herriko ezaugarri nagusia.

Errealitatea komunikabideek

nahi dutena da, beraz: haiek esaten badigute hiru mila lagun bildu dituela Herri Batasunak Bilbon, 3000 lagun izan dira Bilbon; eta Ermuara milioi bat lagun joan direla badiote, milioi lagun elkartu dira Ermuan. Notiziak auzitan jartzeko aukerarik ez zaigu ematen. Bestela, Atutxarenak eta Barne Ministerio espainiarreko hainbat ministro eta kargudun delinkuenterenak egin zuen aspaldi, ongi dakizunez. "Bertsio ofiziala" ez da nik asmatutako lantresna, nik pagatzen dudana agintariak (errealitatek zerbait gordetzeko) erabili behar izaten duena baizik. Bertsio ofiziala -ez dakit nola konpontzen diren- ez da sekula egiazkoa. Hori ere badakizu.


Zein ote dugu arazoa? Euskal Herritarrak izanik, kanpokoak etorri eta haiek agintzen digutena bete nahi ez dugula. Batzuek betetzen dute, konforme: men egin diote kanpotarrari eta haren uztarpean doaz, haserre

edo pozik, doan edo zerbaiten truke. Baina beste euskal herritar batzuk ez gaude konforme, eta halaxe adierazi nahi di(zu)egu. Orduan, komunikabideak kanpotarren interesak babesteko daudenez, euskal herritar batzuk aukeratu dute herriko hormetan idaztea, estetika jakin baten kaltetan.

Ulertu duzu, noski, baina adibide erraza jarriko dizut. Behatzean jostorratza sartu dizute. Zu, minetan, oihuka hasi zara. Eta ahoa trapuz estali dizute. Eskua odoletan, eta paperez gorde dute bistatik. Minak zaudenez, azkenean, garunean ebakuntza egingo dizute, minik senti ez dezazun. "Hostia!", esango duzu, agian. "Hobe, eroso, azkar eta merkeago jostorratza ateratzea!" Hortxe gara. Arazoa ez da hormak zikintzea.

Capicce?

**Jeatxe.**



*Ez da Morau, ezta Ruper ere, ez du ba Mikel Laboaren antzik! Josetxo da, hainbeste aldiz kalean ahosoinua jotzen entzun izan duguna. Txoznetako afarian ez zuen mikrofonoen aurrean jartzeko beldur haundirik izan.*

## Telesforo Ardoak



Zure mahairako egokienak

Kale Nagusia, 25  
Telf. 943 36 12 20



## TABERNA



7 t'erdietan irekitzen dugu

Goiz goizetik gosariak

Irazu kalea, 12  
Tlf: 943 36 02 17

## PATRI

JATETXEA

Eguneko bazkariak eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil  
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)



# Berriketan

## Mari Paz Almandoz Zabala

Izatez aranoarra den arren, badira 20 urte baino gehiago Usurbila etorri zela. Atxegalden denek ezagutzen dute, duela gutxi arte egunero aritzen baitzen dendako mostradore atzean lanean. Orain, Hernaniko okindegi batean ari da.



### Noiz ireki zenuen denda Atxegalden?

Duela 21 urte. Hasieran Loli kinkildegiaren alboan nuen denda, baina gero hori txikia geratu zela eta beste lokalera pasa nintzen, duela 12 bat urte.

### Denda ireki aurretik non egiten zenuen lan?

Baserrian lan egiten nuen. Hona bizitzera etorri ginenean, ama eta biok egun guztian etxean egoten ginen eta gizonak esan zigun hemen bertan zerbaite jarriko zigula denda irekia.

### Ba al zen beste dendarik Atxegalden?

Bai, urte berean hiru denda ireki ziren. Lehenengoa Bordatarrek ireki zuten apirila maiatza inguruan, gero ekainean Iglesiasek eta nik, irailean. Gero beste biek itxi egin zuten eta nik bakarrik egin nuen aurrera, orain arte.

### Asko aldatu al da Atxegalde urte hauetan?

Nik ez dut aldaketa handirik atzematen. gurekin batera orduantxe etorri ziren bikote asko, denak adin beretsukoak. Gehienak etxe berriak hartuta, bikote gazteak.

### Normalean zein joaten da erosketak egitera?

Hemen gehienetan emakumeak, gizonak ere bai baino gutxiago. 20 urte hauetan nik ez dut aldaketa handirik atzeman, lehen etortzen ziren gizonak baziren, eta baita orain ere.

### Zein ordutan ibiltzen da jende gehien?

Eguerdialdean, arratsaldea beti arinagoa izaten da. Hau leku guztietan gertatzen da, orain nabilen okindegian ere bai.

### Zein da dendan egoteko ordu txarrena?

Arratsaldean, ireki eta laisterrekoa. Arratsalde

erdi arte ez da jende asko ibiltzen, ogi bila norbait baina gutxi batzuk. Hala ere, hor egon beharra dago.

### Aspertu egiten zinen orduan.

Aspertu ez, nekatu. Ordu asko dira pertsona bakarrak egiteko. Gainera ez dut sekula itxi, inoiz ez dut oporrik egin, ezta bajarik hartu ere.

### Eta orain non egiten duzu lan?

Hernanin, okindegi batean, egun erdian lana eta astean bitan jai izaten dut. Bi gabiltza lanean, goizean nik egiten dut eta arratsaldean berak eta igandeetan biak egoten gara. Lana ez da, nekagarria ez da, baina orduak sartu behar. Gainera garbia da, ez dago batere fruitarik ezta txarkuteririk. Ogia, egunkaria, gozogintza eta elikadurako zerbaite.

### Beraz, orain hobeto zabilta?

Bai, goizean loa pixka bat gehiago galtzen duzu baina eguerdian etortzen zara eta bukatu duzu. Denbora gehiago daukat niretzat, etxerako eta baita hankak deskantsatzeko ere. Lehen eguerdian etortzen nintzen neka-neka eginda eta pixka bat egon eta berriz joan behar nuen. Eta bukatzeko gaueko bederatzia pasata.

### Asko aldatu al da zure bizitza?

Beno, lana berdina izan arren asko aldatu da. Orain lasaiago nago, irabazia gutxiago bada ere merezi du. Gauza asko aldatu dira, adibidez, lehen kotxean ez nintzen ibiltzen, bi aldiz berritu dut karneta baina ez nintzen batere ibiltzen. Orain kotxea hartu beharra dut. Lanean ere hasierako egunak ikasteko izan dira, dena berria baita. Pixka bat martxa hartu arte kezka izaten duzu, baina orain ja gustora nago.



ARRAINDEGIA  
**PELLO**



Arizeta Kalea, 1  
Tif 943 36 21 64  
USURBIL



**URTINEA  
LORATEGIA**

*Lore eta lore landareak*

San Esteban  
Tif. 943 36 22 55

**TABERNA  
JATETXEA**



**ANTXETA**

EGUZKITZA, 4  
TEL: 37 03 44  
20.170 USURBIL



# TXOKOALDE

## Gero eta gutxiago gara

**T**xokoalde auzo txikia izanik, bertan bizi garen pertsona kopurua, ez da oso handia. Zoritzarrez azkenaldi honetan kopuru hori beherantz doa pixkanaka-pixkanaka, izan ere lau gizon joan zaizkigu gure artean denbora gutxian.

### Bixente Zapirain

Lartzanditakoa, **Fermin Roteta** Urdakoa, **Santi Añorga** Saltxipikoa eta **Joxe Aginaga** Illunbekoa. Azken hau Noaua! hamabostekariaren korrespondentzia gurelarik.

Martxa honetan haur gehiago jaiotzen ez badira, Txokoaldeko demografiak

beherakada nabarmena izango du datozen urteetan.

Bestalde, esan beharra dago obrak aurrera jarraitzen dutela, mantxo-mantxo, bere pauso makalean noizbait lanak amaituko dituztenaren itxaropenarekin egon beharko dugu. Azkenaldi honetan hodiak pasatzen ari dira eta egun hauetan Erroizpe elkartearen aurrean ibili dira hodi berriak jartzen. Hodi hauek jartzen ari ziren bitartean bidea itxita eduki dute berriz ere. Hala ere orain normaltasun osoz ibili daitezke Txokoaldeko bideetatik gora eta behera.

Olatz Goenaga



Joxe Aginagaren kronikak ez ditugu tarte honetan gehiago irakurriko. Joan den uztailearen 8an hil zen azken sei hilabeteetan Txokoaldeko kronista izan dena. Eskerrik asko Joxe egin diguzun ekarpenagatik eta bide batez, dolumina agertu nahi dio Noaua! aldizkariak Joxe Aginagaren familiari. Goian bego Joxe Aginaga.

# KALEBERRI

## Abuztuan itxita egongo da Oiardo

**S**antixabelak agurtu ondoren opor giroa da nagusi Usurbilen. Oiardo kiroldegian ere nabarmendu da hori. Eguraldiak asko laguntzen ez badu ere jendeak hondartzarako bidea hartzen du ahal



duen guztietan. Honez gain, uztailean kirolari kopurua ere asko jeisten da garai hauetan eta kirol taldeek ere jai hartzen dute bi hilabete hauetan. Azken finean, udaran asko jeisten da hemengo mugimendua.

Guk ere, abuztu osoan itxiko dugu kiroldegia. Azken urteetan bezala, aurten ere Oiardo kiroldegia itxita egongo da abuztu osoan. Beraz, badakizue, datorren hilean ezingo

duzue Usurbilgo kiroldegira etorri. Baina lasai! Oiardo kiroldegia itxita egongo bada ere hor dituzue Urnieta, Hernani eta Lasarte Oriako kiroldegiak. Hauetan sartzeko ez duzue eragozpenik izango, bazkide txartela erakutsi eta barrura, kirola egitera.

Bestalde, Santixabel jaiekin jarraituz, ur azpiko jokoak izan ziren joan den ekainaren 29an. Ume ugari parte hartu zuten goizean egin ziren jokoetan. Kanoak alde batetik, koltxonek bestetik, gustora ibili ziren batera eta bestera. Txapelketa modukoak ere egin zituzten eta zenbait sari ere banatu ziren hurrengo egunean.

Begoña Arriaga





# ATXEGALDE

## Agur Agerialde ikastetxea

Amagoia Mujika



**A**zken urteetan, Udarregi ikastolakoak egoitza berrira pasa zirenetik, orain dela 10 urte baino gehiago, bi ikastetxe izan ditugu Atxegalden. Hemendik aurrera bietako batez bakarrik hitz egin beharko dugu. Izan ere, joan den ekainaren amaieran esan zigun agur Agerialde ikastetxeak. 20 urte baino gehiago Atxegalden dagoen eskola publikoan egon ondoren, behin betirako bere ateak itxi ditu ikastetxe publiko honek.

Zer gertatuko da orain Agerialde ikastetxeak zuen eraikuntza haundi horrekin? Zer erabilera emango zaio aurre-

rantzean? Azken bi urteetan lanbide hastapenekoak hor ematen dituzte ikastaroak. Gozogintza eta ileapaindegi nahiz estetika ikastaroak emateko prestatutako gelak dituzte. Stoizismo Katoliko rock taldeak ere hor ensaiatzen du.

Hala ere, Udarregi ikastolak Kalezarko ikastolan dabil-tzan eskolaurreko haurrak

handik behera ekarri nahi ditu eta Agerialde erabili ahal izatea eskatu dio hezkuntza sailari. Orain, erantzunaren zain daude.



# KALEZAR

## Kalezarko mojetan ibilitakoak elkarrekin

Begoña Zubiria



**N**ola aldatzen diren gauzak! Orain Udarregi ikastolako txikiak, eskolaurrekoak, ibiltzen dira kalezarko ikastetxean. Lehen, ordea, orain dela urte mordoska bat, beste mota bateko ikastetxea zen gure auzoko ikastetxea.

Mojen konbentuaren aurrean dagoela, gauza jakina da, baina lehen hor mojek klaseak ematen zituzten. Ikastetxe hartan ibiltzen ziren guztiak neskak ziren.

Joan den uztailaren 10ean elkartu ziren kalezarko mojetan ibili zirenetatik batzuk. Mojen konbentuan ospakizu-

na burutu ondoren Txitxardin beltz jatetxean afaldu zuten. Guztira ehundik gora bildu

ziren eta garai bateko kontuak eta oraingoak tartekatze-ko aukera paregabea izan zuten.





# SANTUENEA

## Fermintxo astotxoaren istorioa

Pako Agudo



**A**stotxoa, ai gure astotxoa. Horrenbeste denbora astotxoaren zain eta hiru egunetan akabo urtebeteko ilusioa. Santuenean badira hiru astotxo, bi dira emeak eta bat arra. Urdaiagara joateko eskailerak hartu eta ezkerretara dagoen soroan egoten dira.

Joan den uztaillaren 7a egun haundia zen Iruñean, baina baita gure auzoan ere. Asto horietako bat haurdun zegoen eta egun berezi horretan ekarri zuen mundu honetara Santueneko lau hankako laugarren astoa. Jendeak bazuen astotxoa ikusteko gogoia, gaur egun gero eta asto gutxiago baitago eta astotxoak berriz,

zer esanik ez. Honela, ba, San Fermín egunez jaiotzea eta Fermintxo jarri zioten izena astotxoari.

Hala ere pozak ez du asko iraun. Uztaillaren 10ean hilda agertu zen Fermintxo. Hiru egun besterik ez zuen iraun gure bizilagun berriak. Soroaren erdian dauden zuhaitzen gerizpean jaiotzen bazen ere, zelaiko txoko batean aurkitu zuten hilda. Nola hil zen? Ez dago batere argi.

Badirudi zerbaitek beldurtu zuela hilda aurkitu zuten txokora joateko. Honela bukatzen da astotxoaren istorioa, datorren urte arte beste astotxo baten zain egon beharko dugu.



# URDAIAGA

## Hormigoia Igartzabaletik gora

Maribi Arrospide



**U**ztaillaren erdia ere pasa da eta udara eguraldi gutxi ikusi dugu hemengo bazterretan. Garai bateko eguraldi onak hor nonbait egongo dira gordeta, guk behintzat ez ditugu ikusi. Noizean behin eguraldi ona egiten duenean hurrengo egunean pattaldu egiten da berriz.

Panorama hau ikusita Leizekaldeko parkean ez dabil jende asko. Joan den urtetik hona aldaketa ugari izan ditugu hemen, baina eguraldiak laguntzen ez badu! Orain, komunak ere jarri dituzte eta! Hauek garbituko dituen baten bila ibili omen da udala eta

uztaillaren 10ean amaitu zen lan hau hartu nahi zutenentzat izena emateko epea. Azkenean badirudi badagoela komunak ireki, itxi eta hauek garbituko dituen: Sara Segurola.

Urdaiagatik gora joaten bagara berrikuntzak ditugu Andatza bidean. Puela berri bota dutela bada-kizue, baina bertara joateko bidean hormigoia

bota dutela jakinarazi nahi nizuen. Igartzabaldik gora, zati batean ez zegoen hormigoirik. Orain Urdaiagatik Puela berria zegoen arte hormigoizko bidea aurkituko duzu.





# AGINAGA

## Mapileko untziolako goleta haiek...

Izaro Aizpurua



Usurbilgo udala eta **Joxe Ramon de Miguel** itsas kapitain eta maketista mapileko untziolan egin ziren hiru itsasontziren maketak egiteko akordio batetara iritsi ziren. Maketa hauek hiru urtetan egingo omen ditu maketistak. Orain, ordea, lehenengoa eginga du. Datozen egunetan "La Habana Donostia" goletaren maketa aurkeztuko dute udaletxean.

XVII. mendean untzi asko egingen ziren Aginagan. Mapileko untziola oso garrantzitsua zen garai hartan. Inguruetan egur asko zegoen eta horrek posible egiten zuen honelako industria

egotea inguru honetan. Honela, jende askok untziolatan egiten zuen lana.

Esaten dutenez **Mapileko untziolan** eraiki zuten 1660. urtean **Maria Teresa infantak** Bidasoa ibaia zeharkatu zuen goleta ere.

Gaur egun ez dago untziola honen arrastorik. Dirudienez XIX. menderako itxi zituzten inguruko untziola guztiak. Hala ere, 1858an

Mapileko untziolan lanean ziharduten, zenbait liburutan **Jose Leandro Ycutza** Aginagan eraikitzen ari ziren untzi batetik erori zela jartzen baitu.



# ZUBIETA

## Santio jaiak Zubietan

Izaskun Zubiria



Santioak iritsi dira. Uztailaren amaieran jaiak ditugu Zubietan. Zubietar guztion gozamenerako egun zoriontsuak izan daitezke festa egun horiek. Motzak direnik behintzat ezin esan. Urtero bezala Santio bezperan hasi eta San Inazio egunean amaituko dira festak.

Ekitaldiz-ekitaldi hitz egiteaz utzi eta ekitaldi batzuetaz arituko naiz lerro hauetan. Lehenik eta behin "herri antzerkia" aipatu behar dut. Joan den urteko euskal festan egin zen aspaldiko partez herri antzerkia eta aurten Santiotan ikuskizun polit hori ikusteko aukera izango dugu. Zer nolako herri

antzerkia izango den? Uztailaren 29an, asteazkenean, Zubietara agertu 22.30ak aldera eta orduan jakingo duzue nolako antzerkia egiten den Zubietan. Umeak, gazteak, helduak guztiok gozatuko dugu ekitaldi honetan.

Soka dantza ere izango da aurten. Bigarren urtez jarraian, meza nagusiaren ondoren zenbait zubietarrek lehengo garaietatik berreskuraturako dantza eskainiko dute

herriko plazan Santio egunean bertan.

Beraz, ondo pasa Santioak eta guztion gustokoak izan daitezela.



Arg: Ekaitz



# Nikolas Izeta: "Erleaz zortzi bertso ez, ehun ere egin daitezke"

**G**izon haundi batek animalia txiki bati jarritako bertsoek irabazi dute aurtengo Santixabel bertso paper lehiaketa. Izan ere, Nikolas Izeta kalezartarrak erleari jarritako bertsoek eskuratu dute lehen saria. Antton Aranburuk eskuratu zuen bigarren saria, Arantzazu Aranburuk hirugarrena, Joxe Mari Arzallusek laugarrena eta Leire Errastik bosgarrena. Guk irabazlearekin solasalditxo bat izan dugu.

## Sariarekin gustora?

Bai, irabazitakoan beti gustora. Uztailearen 4ko bertso saioan, sariak eman baino lehen banekien lehiaketa irabazi nuela, aurreko egunean esan baitzidaten. Bestela ezustekoa haundiagoa izango zen.

## Lehen postu hori lortzea espero al zenuen?

Idatzitakoan beti espero da zerbait, irabazteko idazten baitira bertsoak. Ez banu lehen saria eskuratu ez zen ezer pasako baina irabazteko esperantza ez da inoiz galtzen.

## Aurreko lehiaketetarako bertsoak idatzi izan dituzu?

Ez da lehiaketan parte hartzen dudan lehen aldia, askotan aurkeztu izan ditut nire bertsoak. Aurreko urteetan ere bi aldiz eskuratu izan dut lehen postua.

## "Ni animalia bat naiz" zen gaia eta zuk erlea aukeratu duzu gaitzat. Zergatik erlea?

Lehengusuak erlauntza bat eman zidan udaberrian. Honela, erle kontuak ikasten ari naiz pixkanaka-pixkanaka. Mundu hori oso polita iruditzen zait eta gaia animalia zela jakitean erlea aukeratu

nuen. Erleak, azken finean, oso gauza bitxiak ditu.

## Erlearen ideia etorri aurretik, buruan beste animalia baten ibili al zenuen?

Nik Usurbilekin lotura zuen animalia aukeratu nahi nuen. Harmarriko basurdea buruan ibili nuen baina azkenean erleari egin nizkion bertsoak. Udaberrian erleekin hasi ez banintz ez nuen erlea aukeratu gaitzat.

## Kontaiguzu zerbait erleei buruz.

Erleak dena du ona. Animalia honen gauzarik okerrera kokka egiten duela da eta gaur egun kokka egitea osasunarentzat ona dela esaten ere ari dira, alerjia dutenek kontrakoa esango badute ere.

Txakurraren ordeaz, erleak behar luke gizonaren lagunik onena. Eztaia, polena, jalea real, propoleoa, zuhaitzen loreak polenizatzen ditu... kokka egitea ere ona da, dena du ona erleak. Bestalde, erleen antolakuntza ere harrigarria da. Denak emeak dira, erregina dute eta lan asko egiten dute gainera.

## Erleari buruzko bertsoak egitea erraza izan al da?

Erlearen kontura zortzi ez, 100 bertso ere egin daitezke. Hala ere, nik oso anarkikoki egin ditut bertsoak. Azken bi hilabeteetan beti buruan eduki dut gaia. Kotxean edo beste nonbait ideiarekin bat izan eta idatzi egiten nuen, hau bukaera polita, hau tartean... beti burua martxan eduki dut.



*Saria uztailearen 4ko bertso saioan eman bazitzaion ere, aurreko egunean bazekien garailea bera zela. Horregatik lasaiago joan zen bertso saiora. Argazkian, txapela buruan duela Nikolas Izeta XXII. santixabel bertso paper lehiaketan garaile izan ziren bertsoak kantatzen.*





Bertsok txukundu eta antolaztea izaten da gero azkenengo lana.

### **Bertsok amaitzean gustora gelditu al zinen?**

Gustora edo ez, bertsok idatzi ezkerok nik beti aurkezten ditut. Askotan zera gertatzen da: egun batean bertsoa idatzi eta hau ona da esaten dut. Hurrengo egunean irakurri eta, a! ez zait ba asko gustatzen. Horrelakoak izaten ditu bertsoak idazteak. Nik nire bertsoak amaitzean ez dizkiot inori erakutsi. Hala ere, beste bati erakustea izaten da onena. Nik lehen Joxe Mari anaiari erakusten nizkion, zer iruditzen zaizu hau, bestea... Azkenean elkarri akatsak ateratzen amaitzen genuen. Horregatik aurtan ez dizkiot inori erakutsi.

### **Iaz ez omen zinen lehiaketara aurkeztu. Zergatik?**

Gaiagatik ez nintzen aurkeztu. Azken bi urtetan Usurbilen egin zituzten obra berriak izan ziren gaiak. Aurten, ordea, gai zabalagoa jarri dute, mila eratarata bideratu zitezkeen bertsoak. Azken finean horrek animatu nau aurtengo Santixabel

bertsopaper lehiaketan parte hartzera.

### **Nondik datorkizu bertsogintzarako grina?**

Aita zana afizio haundikoa zen. Saizarren ere birritan atera zen txapelketan. Anaia ere bertso munduan sartuta ibili zen. Etxean beti egon da bertso giroa. Horrez gain, Ikastolan Landaberrin ibili ginen eta han bertsolaritzari garrantzi handia ematen zitzaion. Honela sartu zitzaizkigun bertsoak odolera. Anaia eta biok logela berean lo egiten genuenean ohera joan eta lo hartu arte bertsoan aritzen ginen behin baino gehiago. Nik hiri gai hau hik niri bestea...horrela ibiltzen ginen lehen.

### **Bertsopaperak ere aspalditik egiten al dituzu?**

Ikastolan bertsopaperak egiten genituen lehendabizi eta gero pasa ginen bat batekoara. aurreko batean Bota Puntubako artxiboan 14-15 urterekin Santixabel lehiaketarako idatzi nituen bertsoak aurkitu genituen: Andatza zen orduko gaia.

### **Gaur egungo bertsolaririk gustokoena?**

Andoni Egaña.

### **Lehenagoetatik bat aukeratzekotan?**

Nik ez nuen ezagutu, ez nuen zuzenean inoiz entzun, baina entzundako zintetatik etab. Uztapide aukeratuko nuke.

### **Bertsopaperak idazteko neurri gustokoena?**

Iparragirreren doinua asko gustatzen zait, batez ere tartean ematen den eritmo aldaketa horregatik. Hitz joko politak egin daitezke hor.

### **Eta bat-batean?**

Zortziko txikia da onena, bromarako behintzat bai. Gaurko doinu luzeekin asko hitz egiten da baina ezer esan ez. Zortzi puntukoetan, bederatzi puntukoetan... azkenera arte ez da ezer esaten. Lau puntukoa bota arrazoi batzuekin eta nahikoa.

### **Datorre urtean txapela defendatu behar.**

Ikusiko dugu, gaiaren arabera egongo da guztia. Berriz ere gaia obraren bati buruzkoa baldin bada arkitektoak egin ditzala bertsoak.

### **Aukeratu bat: bertsopaperak ala bat-batekoa.**

Oso gauza desberdinak dira, afari batean ez zara bertsoak idazten hasiko ezta? Idatzizko bertsoak lan bat suposatzen du, ez dakizu saririk izango duen ala ez. Saria eskuratzean esaten duzu: bertso horiek egiteko ordu batzuk sartzeak merezi zuen. Bat batekoan txaloekin edo han bildutakoen barreekin konformatzen zara. Bi mundu dira, oso desberdinak.

### **Nola ikusten duzu gaur egungo bertsolaritzaren egoera?**

Osasun ona du bertsolaritzak. Bertsolari gazte asko ateratzen dira baina goiko punturara gutxi batzuk iristen dira, onenak hain zuzen ere. Bertsolari gehiegi dagoela? Ez dut uste inoiz bertsolari gehiegi egongo denik. Bertso eskolatan ibiltzen diren guztiak kotatu ezkerok bai, baina kalitate haundikoak, plazetan ibiltzen direnak dozena bat dira.

Josu Aranberri



## Nekazari bide gehiago berrituko dira

**N**ekazari bideak hobetze-ko lanak aurrera doaz pixkanaka-pixkanaka. Uholdeen ondorioz kalte haundiak izan ondoren, orain guztia bere onera ekartzeko lanean dihardute. Zenbait bide berritu dituzte, beste batzuk itxaron egin beharko dute oraindik.

Herriko ordezkariak joan den uztailaren 10ean gobernu zentralako obra zuzendariekin bildu ziren nekazari bideen lanak nola doazen aztertzeko. Gobernu zentrala, bideen berrikuntzak sortzen duen kostuen %55a ordaintzera konprometitu zen eta bilera honetan lanen nondik nora-

koak eta aurrerantzean egin behar diren bide berrikuntza berriekin zer egin aztertu zuten.

Joxe Antonio Altuna alkatearen esanetan nekazari bideak berritzeko lanak ondo doaz. "Lanak oso aurreratuta daude. Bide bazterrak, erretenak eta hormigoia botatzen denean bide bazterrean gelditzen diren koxkak berdintzea besterik ez da falta. Diru aldetik ere ez dago arazorik, gauzak ondo daude. Orain, hemendik aurrera berritu behar diren bideen zerrenda bat egin behar dugu. Hauek, ez ziren lehen zerrendan sartu eta hauek berritzea komenigarria dela ikusi dugu beste lanak gauzatzen ari ziren bitartean". Orain, gobernu zentralako obren zuzendari-tzari berritu behar diren nekazari bideen zerrenda bidali beharko dio udalak.



## Etxealdiako plaza ingurua txukundu dute

**E**kainaren 1eko uholde-ek utzitako arrastoak ezabatuz, Etxealdia ingurua txukuntzen aritu dira azken bi hilabete hauetan. Alde batetik, etxe arteko plaza berritu dute eta honekin batera, jardinak eta barandilak ere berritzeko asmoa dago.

Urbanizazioaren konponketa hau ez da Etxealdian burutzen ari diren lan bakarra. Dagoeneko hasiak dira etorkizunean bertara sartzeko izango den sarrera berria egiten.

Oraingoz betelana egiten ari dira. Erroizpeko presa hustutzerakoan ateratzen duten guztia, harriak eta



lurra, Etxe-txuri eta Etxealdia bitarteko lur zati horretara ekartzen dituzte. Hasiera batean, Erroizpeko presatik harri eta lurrezko 800 kamioikada ateratzea pentsatzen bazuten ere, orain


arte 300 kamioikada atera dira eta hemendik aurrera beste 100 bakarrik aterako di-tuztela uste dute. Beraz, beste nonbaitetik ekarri beharko dute Etxealdian betelana egiteko materiala.



# Santioak 98

Noaua! Usurbil 47.zk.

1998ko uztailak 17



## Santioak Zubietan

*Santioak*  
BARTZUN - USURBIL



# Uztaila amaitzeko...Santio jaiak

**U**ztailaren 24an hasi eta hilaren amaiera arte, hau da, uztailearen 31 arte Santio jaiak izango dira Zubietan. Azken urteetako ohiturari jarraituz, ahalik eta festa oberenak antolatzen saiatu dira Zubietako jai batzordeko kideak. Azken hilabeteetan festa hauek prestatzen burubelari aritu ondoren astebeteko programa bikainarekin aurkezten dira santio jaiak.

Joan den urtean jaiak amaitu bezain laister jarri ziren lanean Zubietako jai batzordeko kideak. Ostiraletan bildu eta datoren urtera begira, urtebete lehenago egin zitezkeen lanei ekin zien. Zenbait gauza zehaztuta utzi ondoren, negua pasatzen utzi eta udaberrian berriz

lanean hasi behar izan zuten. Ez zuten lan gutxi Zubietako gazteek. Hala ere, aurtengo jaien egitaraua ikusita saiatu ez direnik ezin esan.

Uztailaren 25a, Santio eguna izango da Zubietako jaietako egun nagusia. Goizeko 9.00etako esnadeiaren ondoren meza nagusia izango da Santiago elizan. Ondoren, ondo gosaldu ez dutenentzat eta gose haundirik ere bai noski, **hamaiketakoa** egiteko aukera ez da faltako.

Joan den urteko modura, **soka dantzak** ere bere tarteari ez dio uko egin. Altxaporr! Gora hankak! Zubietarrak dantzan nola moldatzen diren ikusteko aukera paregabea ezingo da galdu.

Arratsaldean trikitixa nagusi. Usurbilgo trikitilariak beren abilezia erakutsi beharko dute Zubietako plazan. Aurtengoan gainera, txapelketa modura antolatu dute saioa.

Santio egunean, ilunabarrera, ez da jai girorik faltako. Bertso jaialdia izango da lehendabizi. **Oihane Enbeita, Estitxu Fernandez, Ekiñe Etxepeteleku eta Jexux Mari Irazuk** jardungo dute oholtz gainean kantari. Bertsolari hauen gidari, berriz, **Ebaristo Pikabea** gai jartzaile lanetan. Bertso saioaren ostean etorriko dira **Ttak** taldearen kontzertua eta **Izotz** taldearekin nahikoa dantza egiteko aukera. 1998. urteko Santio egunari amaiera emateko gau borobila benetan.

**Herri antzerkia** izango da Santio jai hauetako beste ekitaldi nagusia. Uztailaren 29an, asteazkenean, gaueko 22.30etan hasita Zubietako jende askok parte hartuko du herri antzerki honetan. Antzerkiaren nondik norakoa isilpean gorde nahi izan dutenez, Zubietako plazara hurbildu beharko dute antzerkia ikusi nahi duen guztiek.

Goian aipatutakoez gain ekitaldi desberdinen zerranda luzea egin beharko litzateke Santio hauetan. Festa giroa atsegin duenak badu nora joan. Zazpi egun dituzte zubietarrek nahiz ingurukoek jaietz gozatzeko, ez dira gutxi! Aspertzeko ere!



Argi: Ekaitz

Aurten ere izango da hamaiketakoa egiteko aukera Santio egunean. Soka dantzaren aurretik nahikoa jan eta edateko aukera izan ohi da.

## ERREKONDO EGYRZERRA

Eraikuntzarako: Haritza Piñu Alerzea  
 Altzariak egiteko: Haritza Lizarra Gereizia Gaztaña

Santio zoriontsuak pasa!

Zubieta

Telf.: 943 36 22 3

## IRIGOIEN JATETXEA

ZORIONAK ZUBIETAR  
 GUZTIOI!

ZUBIETA

TELF.: 943 37 28 75




# Orain dela urte askotako ohitura berreskuratuz

**U**surbilen bakarrik ez Zubietan ere soka dantza egiten dute azken urteetan; hobe esanda, aurten aintzinako dantza hau egiten duten bigarren aldia izango da. Joan den urtean egin zuten aspaldiko partez eta aurten ere errepikatzeko asmoa dute. Santio egunean, eguerdiko 12.00ak aldera, soka dantza egingo dute zubietarrek.

Orain dela urte asko soka dantza egiten omen zen Zubietan. Donostiako alkatea bera ere etortzen omen zen. Hala ere, 50 urte baino gehiago ziren dantza hau Santio jailetan egiten ez zela.

1997. urtean, ordea, ohitura zahar hau berreskuratzea era-




Arg. Ekaitz

baki zuten. Zergatik ez ba? Esan eta egin. Santio egunean soka dantza egin zuten Zubietako plazan. Bederatzi ziren guztira eta soka dantzak eskatzen duen moduan soka

luzatzeko beste hainbat pertsona atera zituzten plazara amaieran, guztiak batera arinarin eta fandangoa dantzatzeko. Zubietako ikurra zuen bandera atera eta dantzarien buru gainetik ibili zuen gero dantzarietako batek.

Aurten ere hasi dira entsaiztzen. Uztailaren 12an eskola txikietan harrapatu genituen joan den urteko pausoak gogoratzen. **Iñaki Urkia** maisu dutela bi astetan berriz gogoratubeharko dituzte soka dantza eta axeri dantzaren pausoak. Lau bildu ziren lehen saio honetan, baina denborarekin zortzikotea osatzen joango da piskanaka-piskanaka. Gero, Santio egunean, larunbatean, erakusti beharko dute beren abilezia.

Josu Aranberri



Eguneko bazkariak

## ETXEBESTE JATETXEA

Ondo ibili  
Zubietako festetan!

Aginaga ☎ 943 36 27 40

# ORPKE

USURBILEN  
ZURE ONIETAKO  
DENDA

ARITZETA 2-2 Telf.: 943 36 19 71

*Eta gainea!!  
oinetakoak  
kompartzen ditugu.*

## SERIGRAFIA TANPOGRAFIA

# JOSU

Ugaldea poligonoa 36 - 2º Esk  
Usurbil - Gipuzkoa

943  
37 19 54

INDUSTRI ETA  
IRAGARKI SERIGRAFIA  
KAMISETEN INPRIMAKETA



## Uztailak 24. ostirala

20.00etan Jaiei hasiera buruhaundi. txalaparta, txistulari etab.ekin.

23.00etan **EGAN** taldearekin dantzaldia

## Uztailak 25. larunbata Santio eguna

Goizeko 9.00etan **esnadeia**.

11.00etan **Meza Nagusia** eta ondoren **hamai-ketakoa** denontzat.

Arratsaldeko 18.30etan **trikitixa txapelketa Usurbilgo trikitilariekin**.

Ondoren **buruhandiak**.

Gaueko 22.00etan bertsolari saio ederra **Ohiane Enbeita, Estitxu Fernandez, Ekiñe Etxepeteleku** eta **Jesus Mari Irazurekin**. Gai jartzailea **Ebaristo Pikabea**.

Ondoren, **TTAK** taldearen kontzertua eta **IZOTZ** taldearekin dantzaldia.

## Uztailak 26 Igandea

9.00etan **esnadeia**.

9.30etan **Meza Nagusia**.

Ondoren **pelota finalak eskuz plaza librean**.

17.30etan **dantza talde** bat.

Ondoren **sagardo probaketa**.

20.30etan **Herri afaria**

**Sebastian Lizaso** eta **Andoni Egaña** bertsolariak eta **Irune** eta **Izaro** trikitilariak

## Uztailak 27 astelehena

6.00etan **oilasko biltzaileen irteera**

14.00etan oilasko **jokoak**

## Uztailak 28 asteartea Umeen eguna

10.00tan hasita **haur joko eta jolasak**.

12.00tan **haurren esku pelota finala**.

Arratsaldeko 16.00etan **jokoen jarraipena**.

Ondoren **mago baten xoua**.

19.00etan **txokolatada** eta **goxoki banaketa**.

23.30etan **AKELARRE** taldearekin dantzaldia

## Uztailak 29 asteazkena

Goizean **meza**.

14.00etan **jubilatuaren bazkaria**.

18.00etan **bertsolariak** eta **trikitilariak**.

22.30etan **Herri antzerkia**

## Uztailak 30 osteguna

Gaueko 23.00etan trikiti-gaupasa izango da herriko plazan. **ALAITZ** eta **MAIDER** eta **ETZAKIT** taldeekin.

## Uztailak 31 ostirala

Goizeko 6.00etan **txokolatada**

7.00etan **sokamuturra**.

9.00etan **esnadeia** eta honekin batera **zikiro prestaketa**

10.00etan **Meza Nagusia**

Ondoren **errebote lokaleko finala** eta ondoren **eskuzkoa**.

14.00etan **zikiro jana** trikitixa txapelketako irabazleekin batera.

18.00etan **Zubieta-Aginaga**. Herri kirolak.

23.00etan **LAIOTZ** taldea eta azken **traka**.

*Ondo pasa jaiak!*

**ALAMANDEGI**  
**TABERNA - JATETXEA**

Tlf. 943 36 28 49 - **ZYBIETA** - Gipuzkoa

Santio on!

**Elexpe**  
SOLARIUN  
bono bereziak  
**ileapaindegia**

Olarondo kalea, 1 20170 USURBIL TLF 37 04 62



# Olatz De Miguel Arnaiz: olerkari gazte bat

**D**BHko hirugarren maila amaitu berri duen zubietar gazte honek, badu betarik olerkiak idazten aritzeko. Eta bai ederki idatzi ere! Urruzuno literatur lehiaketan garaile izan da poesia arloan. Bere lehenengo lana bada ere, ziur etorkizuna ilusioz hartuko duela aurrerantzean. Animo, bada, eta **ZORIONAK OLATZ!**

**Zer dela eta animatu zinen Urruzuno literatur lehiaketan aurkeztera?**

Hasiran nire lana ikastolarako zen. Paisaia baten deskribapena egiteko esan ziguten baina ikuspuntu berezi batetik; ama galdu izan bagenu bezala. Hau da, amaren heriotzak gugan sortaraziko lukeen sentimendua barnerturik, nola ikusiko genukeen paisaia hori.

**Eta nola pasa zen zure olerkia ikastolatik Urruzuno literatur lehiaketara?**

Nire lana irakasleari gustatu eta olerkari moldatzea proposatu zidan. Egia esan Milak laguntza haundia eman dit. Behin idazlana olerkitan jarri ondoren, Urruzuno literatur

lehiaketan aurkeztea erabaki genuen.

**Lehenago aurkeztu al zara inoiz literatur lehiaketa batetara?**

Ez, inoiz ez nintzen literatur lehiaketa batera aurkeztu, hau zen lehendabiziko aldia.

**Lehenengoa irabazita ziur etorkizunean gehiago idazteko animatuta zaudela...**

Bai, sari bat irabazteak ilusio handia egiten du, baina jakin badakit irakaslearen laguntza garrantzitsua izan dela lan honetan.

**Nori zuzenduta dago Urruzuno saria?**

Uste dut 14 eta 17 urte bitartekoentzat dela.

**Beraz, oraindik baduzu parte hartzeko aukera, urte batzuetan behintzat.**

Bai, oraindik 15 urte ditut eta datozen urteetan lehiaketan parte hartzeko aukera izango dut. Bere garaian ikusiko da aurkezten naizen ala ez.

**Eta, zein da lortu duzun saria?**

10 eguneko bidaia irailaren

azken aldera, seguruena Hungariara, bidaia ordaintzeaz gain nire gastuetarako 40.000 pezeta, oroigarri bat eta nire lana Sagastiberri saileko liburuan argitaratzea.

**Beraz, sari ezin hobea...**

Bai, dudarik gabe. Oso gustora nago eta epaimahaikideak zein ziren kontutan hartuta gehiago: Joxemari Iturralde, Juan Kruz Igerabide, Arantxa Urretabizkaia, Patxi Zubizarreta eta Joxe Mari Satrustegi.

**Amagoia Mujika**


**Hona hemen Olatzen olerki-ko zenbait zati:**

*Mundua,  
munduak biraka dirau;  
bizitza,  
bizitza aurrera doa;  
baina ni, ez.*

*Erreka  
ilun eta tristea,  
alaitasun gabea,  
zelai artean doan sugea;  
garai batean bizia eta alaitasunaren aitzindari;  
orain,  
jada,  
ez du niretzat esanahirik.*

*Zuhaitzak  
zerua harrapatu nahirik,  
hostogabeturik,  
tristeturik,  
tartean bide estu bat,  
nire bihotza bezala,  
non aurkitzen da harrapatu-  
rik.*

*Aurreko paisaia  
itxi eta iluna;  
bukaezineko garaia  
bihotzaren isuna;  
nire pentsamenduan beti  
amaren gozotasuna;  
bere oroimen alaiak  
bideratuko al du nire etorki-  
zuna.*





## “Usurbildarrak daukate”ren lehen ekitaldia



Arg: Ekaitz

Aurten izan da berrikuntzarik Santixabelen hasieran. Urtero egiten den herriko taldeen jaialdia alde batera utzi eta “Usurbildarrak daukate” lehen ekitaldia egin zen herriko frontoian. **Garikoitz Udabe** eta **Amagoia Mujikak** aurkeztutako ekitaldian ikuskizun desberdinak izan genituen. Alde batetik, **Paulino** eta **Unai** txiste kontalariak, streep-tees saioa, herriko dantzariak, Zumarteko haurren abesbatza eta nola ez, Irriu abesbatzako kideak. Aurten Irriu abesbatzak 25 urte betetzen dituenez, omendu egin zituzten bideo eta guzti. “Usurbildarrak daukate” lehen ekitaldi honetan.

## Soka dantza eta salda eta lore banaketa

Tabernariak egin dute aurten soka dantza. Lo askorik gabe eta begiak erdi itxita, baina eguerdiko hamabietan udaletxe aurrean ongi bete zuten beren lana. Hankak gora, pauso bat aurrera, bestea atzera, batek lehenago besteak gero... ondo moldatu ziren aspaldiko ohitura zaharra berreskuratuta hirugarren urtez jarraian egin den soka dantzan. Bukaeeran fandangoa eta arin-arina-dantzatu zituzten aurrez plazara atera zituzten herriko beste tabernari eta zenbait lagunekin batera. Ondoren, Santixabel eguna izanda, salda eta lore banaketa izan zen Joxe Martin enparantzana.



## “Harria eta Herria” olerkien inguruko ekitaldia




J Joan den ekainaren 28an “Harria eta Herria” **Joxean Artze** usurbilgo olerkariaren lanean oinarritutako musika sorkuntza lana ikusteko aukera izan genuen Usurbilgo dorrearen babesean. Usurbilgo olerkariaren olerkiak ardatz hartuta, perkusioa, ahotsa, hitza, kantua, hatsa, flautak, gorputz mugimendua eta harri jokoa tartekatuta eta nahastu zituzten Aitzaga Kultura taldeak antolatutako ekitaldi honetan. **Joxean Artze, Mixel Etxekopar, Beñat Achiary, Ninh Le Quan, Jerome Thomas eta Iñaki Perurena** eta bere semea izan ziren ikusgarri honetako aktoreak.

*Xinkildegia*

Lentzeria,  
glzonezkoentzat arropa,  
haurren jantziak,  
etxerako behar dituzunak

Aritzeta 1 behean,  
20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87



*Ekaitz*

*Bideo eta Argazkiak*

Usurbil

☎ 943 36 14 87

oIARTZUN

**BAR**  
**USURBIL**

*Pintxo eta bokata  
goxo-goxoak*

Eguzkitza



### ITSASONTZI BATEN MAKETA UDALEAN

XVII. mendetik aurrera mundu osoko itsasoe-tan barrena merkan-tzien garraioan ibili zuten "La Habana Donostia" goletaren maketa aurkeztuko dute datorren uztaila-ren 21ean udaletxe-an. Goleta hau, 400 langile inguru zituen Mapileko ontziolan egin zuten XVII. men-dean eta urtebete behar izan zuten, gutxi gorabehera un-tzi hau egiteko. Orain, **Joxe Ramon de Miguel** itsas kapitain eta maketistak, 1,70 metroko maketa egin du.




**I**noiz baino jende gehiago gerturatu zen odola ematera anbulategira joan den uztailaren 6an. Guztira **62 pertsonak eman zuten odola** eta hauetatik lau berriak ziren. Odol emanaldia Santixabel jaiak amaitu eta hurrengo egunean izan bazen ere aurrekoetan baino jende gehiago hurbildu zen urteko lau-garren emanaldi honetara. Odol emalleen elkarteko-ek eskerrak eman nahi dizkie odola eman zuten guz-tiei. Hurrengo aukera irailaren 7an izango da.

### KONTRATU FINKOAK MICHELINEN

Michelinek Usurbilen duen lantegian kon-tratu mugagabeak egingo zaizkie 43 lan-gileri, lanegun aldako-rreko kontratu finkoak jarritz. Honela, bere lanaren %30 murriztu ahal izango die en-presak hilero hama-bost egun aurretik jaki-narazi ondoren. Akor-dioak ELA eta CCOO sindikatuen onespena izan zuen hasieratik eta ondoren, UGTk, aldaketa txiki batekin onartu egin zuen. LABek, berriz, kontratu mota hau salatu du, malgutasuna susta-tzen duela esanaz.



**A**rkatza, boligrafoa eta koadernoak alde batera utzi eta ederki pasa zuten hurrek beren egunean joan den ekainaren 30ean. Goizean goizetik joko ugaritan parte hartzeko aukera izan zuten eta nola ez, hainbat erregalo jaso zituzten goiz osoan zehar. Arratsaldean, berriz, Bonb-eroekin jolastu ondoren aparretan garbitu zituzten egun osoko izerdiak.



**P**iperrak, maskota izan den piper nagusia batez ere, gure ahotan izan ditugu aurten-go Santixabeletan. Iaz hasitako ohiturari segituz aurten ere piperrak jateko aukera izan dugu Usurbilgo piper elkarteko kideen eskutik Santi-xabel egunean. Batzuk garratzak, besteak ez hainbeste... baina jendeak gustora jan zituen ardo pixka batez lagunduta.

Arg: Ekaitz



# Kima

MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa  
**Xabier Carbayeda eta Goyo Martin**



**ZUMETA  
JATETXEA**

**ZUMETA MENUAK**  
(Gutxienez 2 laguntzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz
- Itsaski entsalada hozberoa trufa zaporez
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta pikilo piperraz haragi saltsatan
- Etxeko azkenburuko dastapena
- Ogia eta kafea



## “Aterpe” eskulangintza taldearen erakusketa

**K**utxa berrituak, egurrezko tailak, eserleku zaharrak, pinturak... denetik izan da ikusgai “Aterpe” eskulangintza taldeak uztailearen 1etik 5era bitartean Motzanean egin duen erakusketa. Urtean zehar, bertako ikasleek egin dituzten lanak zer nolako kalitatea duten ikusi ahal izan dute bertatik pasa den jendeak. “Aterpe” eskulangintza taldea joan den urtean, urrian jarri zen martxan eta egurrezko tailak egiteaz gain, altzari zaharren eraberritzea eta pintura ere landu dute. **Joxe Luis Elexpe** eta **Susana Martin** dira talde honetako maisu-maistrak.



## Merkatari ugari euskara zabaltzeko prest



**E**kainaren 29 eta 30ean, merkataritza euskalduntzeko kanpainaren aurkezpen bilera burutu zen udaletxean. “Zenbat da?, 100 pta.?, 1000 pta., 11 milioi?” aurrekanpainak eman ditu bere fruituak, bilera honetara hurbildu zirenak asko izan baitziren. Bertan **Xabier Pikabeak** eta **Olatz Altunak** kanpainaren prozesua eta helburuak azaldu zituzten, eta **Iñaki Arregi**, UEMAko idazkariak, euskara normalizatzen merkataritza arloak duen garrantziaz eta Euskal Herrian nahiz kanpoan burututako antzeko esperientziez aritu zen. Hemendik aurrera, udalaren eta dendari, tabernari, eta bestelako merkatarien arteko konpromezu hitzarmean landuko dira, herriko establezimenduetan euskarari bultzada bat emateko

## 248 erretiratu zaharren bazkarian

**Z**aharren egunean iritsi zen erretiratu askok eta askok itxaroten duten momentua. Urteroko legea jarraituz bazkarian izan ziren hainbat eta hainbat erretiratu. Aurten, joan den urtekoa errepikatuz, Saizarren bazkaldu zuten eta bapo bazkaldu gainera. 248 erretiratu bildu ziren uztailearen 5ean egin zen bazkaria. Bazkaldu ondoren erregalo ugari zozketatzeaz gain, urtero bezala erlojua erregalatu zitzaion opari hau oraindik jaso gabe dauden arteko zaharrenei. **Ignacio Zabalak** bazkarian bertan jaso zuen erlojua, 91 urteko **Mari Kruz Urdanpilletari**, berriz, etxera eramane zioten.




Arg: Ekaitz

# JUANTXO

## Burdindegia



Kale nagusia, 10  
Usurbil 943 37 00 08



# TXIRIBOGA

## TABERNA

pintxoak, bokatak  
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

# N•I

## Ileapaindegia

MISTOA  
Solarium, depilazioa,  
makilajea eta manikura

Aritzeta 2 - 2 1.A  
Telefona: 943 36 19



**HELDUEN PELOTA TXAPELKETA**

Joan den uztailaren 10ean eman zitzaion hasiera Andatzpe eta Peña Pagola pelota elkarteak antolatutako gaztetxo eta helduen mailako pelota txapelketari. Guztira 40 bikote baino gehiagok parte hartuko dute ostiraletan eta larunbatetan jokatuko diren partiduetan. Antolatzaileek azken partidua irailean jartzeko asmoa dute. Usurbildarrak ere arituko dira txapelketa honetan: **Izagirre-Kastresana** jubenetan eta **Huizi-Zilbeti** helduetan.



Arg: Ekaitz

**I**rri abesbatzakoak izan dira aurten ikurrina igotzeaz arduratu direnak. Santixabel bezperan, kanta bat abestu, pregoia irakurri eta suziri artean festei hasiera ofiziala eman zitzaion udaletxeko balkoitik. Danbor soinuak nagusitu ziren ondoren herriko kaleetan. Udaletxe aurrean zenbait pieza jo ondoren herriko kaleetan barrena frontoiraino iritsi ziren danborrada osatzen zuten gizon-emakumeak (gehienak emakumeak baziren ere).

**URDAIAGARA IGOERA, APUSTUA**

Apustuz apustu dabil-tza batzuk azken hila-bete hauetan. Orain dela bi hilabete jokatu zuten apustu bat eta joan den ekainaren 28an egin zuten beste. Oraingoan ere Inaxio genuen protagonistetako bat eta Aginagako "beltxa" bestea. Biak, eskaile-retatik Santuenetik Urdaiagara igo behar zuten, baina "beltzak" 40 kilo eramane behar zituen gainean. Azken hau iritsi zen lehendabizi, Inaxiori oso tarte txikia atera bazion ere, pauso batzuk besterik ez.



**O**ilasko biltzaileak ere baserri-baserri ibiliak dira Santixabeletan. Soinu txikia eta panderoaren laguntzaz berandu xamar baina bi talde hor irten ziren, Aginaga aldera batzuk, Arratzain aldera besteak. Oilaskorik gabe irten baziren ere, bueltakoan ez ziren esku utzik itzuli. Bizkarrean zeramatzaten hagetan hainbat oliako ikus zitezkeen.



Arg: Ekaitz

**A**urten txoznetan hainbat ekitaldi izan ditugu. Jaietako azken egunean, adibidez, Erramun Martikorenaren kantaldia entzuteko aukera izan zuten txoznetara inguratu zirenek. Hasieran jende asko ez bazegoen ere, amaierarako jende ugari bildu zen iparraldeko artzainak Mikel Markezen laguntzaz abestu zituen kantuak entzutera.

**BORDATXO EDARITEGIA**

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42

**MAHUKA**



**GAZTE DENDA**

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 943 36 11 06

**LABERNA**

**IRAGOXRRA**

**BAZKARIAK ETA AFARIAK**

Satuena 23

Tel.: 943 36 27 34



## Arregi anaiak palan txapelaldun

**A**maitu da azken bi hilabeteotan gomazko pelotarekin herriko frontoian jokatu den pala txapelketa. Santixabel festetan izan ziren azken partidua eta Eneko Arregi eta Josu Arregi anaiak izan dira irabazleak. Azken partiduan 35-27 irabazi zieten Mikel Arroyo eta Patxi Arrutiri.

Jende ugari bildu zen joan den uztailearen 5ean pala txapelketako azken bi partidua ikusi asmoz. Orain dela lau urte jokatu zen azken txapelketa eta jendeak ondo erantzun zuen Santixabel festetako azken egunean.

Lehen partidua gogorra izan zen. Hirugarren eta laugarren postuak jokoan, partidu parekatua jokatu zuten **Haritz Urdanpilleta eta Oidui Usabiagak Xabier Mikel**



**Errekondo eta Enrike Huiziren** aurka. Azken bikote honek lortu zuen garaipena eta bide batez hirugarren postua. 35 eta 32 izan zen azken emaitza.

Ondoren jokatu zen txapelketako azken partidua. Bertan lehen postua zegoen jokoan. **Eneko eta Josu Arregi anaiak**

*Txapelketan parte hartu duten 20 bikote-etatik lau bikote hauek izan dira lehen postuetan sailkatu direnak. Joxe Antonio Altuna alkatearen eskuinean daude Arregi anaiak, txapelketan lehen postua eskuratu dutenak.*

**Patxi Arruti eta Mikel Arroyo** izan zituzten aurrez aurre. Hasiera parekatua izan bazen ere lehen bikotearen nagusitasuna agerian gelditu zen neurketaren bigarren zatian. Azkenean **Arregi anaiak** eskuratu zuten Aitzaga elkarteak antolatutako gomazko pelotaz jokaturako pala txapelketa.

## Zubietarrak nagusitu ziren herri kiroletan

**E**uskal Presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzeko koadrilen arteko herri jokoak izan ziren joan den uztailearen 4an dema plazan. Sei talde aritu ziren nor baino nor eta txingetan, lokotxetan, tokan, sokatiran... herri kiroletako zenbait kiroletan aritu behar izan zuten guztiek. Azkenean Zubietakoak irabazi zuten. Aginaga goikoa eta behekoa gelditu ziren bigarren eta hirugarren, gomantxotarrak ondoren, kanpotarrak gero eta kalezartarrak azken postuan.



Arg: Ekaitz

# ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA  
ASEGURU AGENTE / Zbk. 200009



## GENERALI

Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07  
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

# TXURRUT EDARITEGIA



Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1  
Tel: 36 00 80

# XABIER EDARITEGIA

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 943 36 19 78



# Eskuz pelotan etorkizuna jorratuz

**A**zken hilabete hauetan herri desberdinetako pelotari gazteen maila ikusi ahal izan dugu herriko frontoian jokatu den Usurbilgo pelota txapelketako partiduetan. Ilusio haundiz jardun ondoren bakan batzuek lortu zuten finalera iristea eta hauek izan genituen ekainaren 28ko azken partiduetan protagonista nagusi.

Usurbildarrak ere baziren tartean. Lehenengo partiduan herri mailan 12-14 urte bitartekoek jokatu dutenen finala jokatu zen. Bertan, **Mikel Mugika** eta **Jorge Dorado** 18-14 nagusitu zitzaizkien **Jurgi Mendiluze** eta **Xabier Zubeldiari**.


Ondoren, alebin mailan, goizuetarren eta usurbildarren arteko lehia gogorra izan zen.

Partiduaren hasieratik atzetik ibili baziren ere **Patxi Bengoetxeak** eta **Jon Irazustabarrenak** usurbildarrek garaipena eskuratu zuten **Apezetxea** eta **Zubiriren** aurka, 18-16 izan zen azken emaitza.

Infantiletan **Elola-Ropon** Billabonako bikoteak eskuratu

zuen txapelketa, **Auzmendi-Yubero** intxaurrendoiak 18-13 irabazi ondoren.

Azkenik, haundien mailan, infantiletan, Zaldibira joan zen txapela. **Mendizabal** eta **Gurrutxagak** erraz gainditu zituen **Urruzola-Olasagasti** Lasarteko bikotea.



Arg. Ekaitz

**E**z da ohizkoa dema plazak joan den uztailaren 5ean zuen itxura. Aspaldiko partez ididema izan genuen ikusgai eta jende ugari hurbildu zen plazara igandean. Bertan, bi idipare izan genituen aurrez-aurre: alde batek **Egioletako idiparea** eta **Arratzaingoa** bestetik. Orduerdiko lana burutu behar zuten 2600 kiloko harriarekin. Arratzaingo idipare aritu zen lehenengo eta 34 plaza egin zituen. Egioletakoak, ordea, aurrekoaren marka hobetu zuen eta 36 plaza burutu zituen. Azken hau izan zen beraz garailea.

## ZENDOIA-ENEA

### TABERNA

Goizeko 7tatik irekia

Gosariak, hamaiketakoak, eguneroko menuak eta bokatak

Kale Nagusia, 25 Tlf. 943 36 25 60



Arkume erretegia

Arkumea parrilan

Haurrentzako parkea

Ospakizunak eta despedidak

Zumartegi industrialdea Aitezarra kalea, 4

Aparkalekua

Barazkiak parrilan

Etxeko berezitasunak

USURBIL Tel : 943 36 60 49

EGIN ZAITEZ  
**NOAUA!KO**  
BAZKIDE



## Usurbil antomilitarista guztien biltoki

**I**ntsumisioa, desobedientzia, desmilitarizazioa eta askatasuna lemapean Euskal Herriko antimilitarista guztiak biltzen saiatu dira urriaren 11n Usurbilen egingo den Intsumisio egunean. Hori da Kakitzateko kideek joan den uztaillaren 14an Koldo Mitxelena egin zen prentsurrekoan adierazi zutena.

Intsumisio festa, ordea, ez da urriaren 11ra mugatuko. Bezperan ere, larunbatean, hainbat ekitaldi izango dira herrian eta herriko talde desberdinen parte hartzea izango dela iragarri zuten 1998. urteko Intsumisio eguneko antolatzaileek. Honela, musika, antzerkia, dantzariak, bertsolariak etab. izango dira eta ondoren, gauean, kontzertu paregabe bat jarri nahi dute.

Intsumisio egunari berari dagokionez, berriz, kale ani



mazioa, musika taldeak, ekitaldi politikoak, erakusketak, haur jolasak, besteak beste, herri osoa girotuko dute urriaren 11an. Aurten ez da ibilbiderik egongo eta hiru gune desberdin jarriko dira, Joxe Martin enparantzan bat, frontoi inguruan bestea eta Udarregi ikastolako plazan hirugarrena.

Intsumisio egunaren aurretik Euskal Herriko hiriburuetan zenbait hitzaldi izango dira eta kamisetak salgai daude dagoeneko. Honekin batera, "Intsumisio eguna 98" etiketa duten sagardoa edateko aukera izango duzue hainbat tokitan.

Josu Aranberri

## 1959KO POSTERRAK OPARI!!



ZUBIETA (Santioak)



URDAIAGA (San Estebanak)

- Auzo bakoitzeko jaietan *NOAUA!* rekin batera zure auzoaren 1959ko argazkia jasoko duzu dohain.
- Bazkide ez direnek 200 pezetatan erosi ahal izango dituzte NoaUA! Kultur Elkartearen egoitzan tolestu gabeko bere auzoko posterra eta beste auzoetakoak .



Ama hil zenetik  
egunsentiko lehen izpiak  
ez dira niretzat lehen  
bezain distiratsuak

Ilun dago guztia  
nire arima bezala.  
Jaiki eta leihora hurbildu naiz.

Udazkena iritsi da  
hostoak erortzen hasiak dira.

Urte bete,  
urte bete ama hil zenetik!

Zeru gardenak  
ilun eta amaigabea dirudi.  
Zeruertzera begira geratzen naiz,  
liluraturik

Ama joan da!

Pentsamendu bakarra buruan,  
bat-batean nire begiradak  
eguzkiarekin egiten duenean topo.  
Eguzkia  
egunaren gidari,  
gauaren etsai.  
Berak ematen dio kolore bakarra nire  
bizitzari

nire bihotzari.  
Mendiak,  
harresi beltzak,  
eguzkiaren oztopo;  
bizia eta kolorea,  
alaitasuna eta adorea  
sartzen uzten ez duten horma sendo-  
ak.

Mundua,  
munduak biraka dirau;  
bizitza,  
bizitza aurrera doa;  
baina ni, ez.

Bihotza,  
arima,  
biak bat eginik ama hil zenetik,  
bere oroimen goxoarekin geratun  
nahi bailiren.

Erreka  
ilun eta tristea,  
alaitasun gabea,  
zelai artean doan sudea;  
garai batean bizia eta alaitasunaren  
aitzindari;  
orain,  
jada,  
ez du niretzat esanahirik

Alaitasunak ihes egin du nire  
bihotzetik.

Zuhaitzak  
zerua harrapatu nahirik,  
hostogabeturik,  
tristeturik.  
Tartean bide estu bat,  
nire bihotza bezala,  
nire bizitza bezala,  
non aurkitzen da harrapataturik.

Hori al da jarraitu behar dudan  
bidea?  
Ez,  
goibel eta tristeegia,  
inora eramaten ez nauena,  
baina nirea

Aurreko paisaia  
itxi eta iluna;  
bukaezineko garaia  
bihotzaren isuna;  
nire pentsamenduan beti  
amaren gozotasuna;  
bere oroimen alaiak  
bideratuko al du nire etorkizuna

**Olatz De Miguel (Urruzuno sarian  
sariuak izan diren olerkiak)**

## Lehiaketa

### Zein da Zubietako udaletxea?

Asmatzaileen artean **Tragoxka** bi lagunen-  
tzako afaria zozketatuko da

Seguru behin baino gehiagotan pasa zaretela  
azken alean atera genuen lehiaketako argaz-  
kiko zubitik. Izan ere, **Puntapaxen** dago zubi  
zahar hori.

**Lontxo Ibargoienek** asmatu du bai, eta berak  
izango du Egioletan afaltzeko aukera.



**Maria Angeles Arruti  
Sekañan** saria jasotzen



**PINTURAK  
FERNANDO**

Bizkarre, 6 Usurbil  
Tlf. 943 36 60 19 / 36 34 60

**Margoak eta  
paperak**

Sintasola,  
moketa,  
kortxoia eta  
tarima  
jartzen dira

**EGIN ZAITEZ  
NOAUA!KO  
BAZKIDE!**



**UZTAILAK 18 larunbata**

- Andatza mendizale elkarteak antolatuta **BTT irtenaldia** bi egunetarako "**Ulibarri Ganboara**". Joan behar duten guztiei oharra: irteera goizeko 8.00etan izango da frontoi atzean.

**UZTAILAK 20 astelehena**

- **Euskal Herria Askatu!**ren konzentrazioa errotondan. Arratsaldeko 20.00etatik aurrera.

**UZTAILAK 21 asteartea**

- XVII. mendetik aurrera mundu osoko itsasoetan barrena merkantzien garraioan ibili zuten "**La Habana Donostia**" goletaren maketa aurkeztuko da datorren uztaialaren 21ean udaletxean.

**UZTAILAK 24 ostirala**

- **Santio jaiei hasiera** eman-go zaie Zubietan 20.00etan buruhandi, txalaparta, txistulari etab.ekin. 23.00etan Egan taldearekin dantzaldia

**UZTAILAK 25 larunbata**

- 11.00etan **meza nagusia** eta ondoren "**Soka dantza**". 18.00etan **trikitixa txapelketa** Usurbilgo trikitilariekin. 22.00etan **Ohiane Enbeita, Estitxu Fernandez, Ekiñe Etxepeteleku eta Jexux Mari Irazuren bertso saioa.**



San Inazio egunaren bezperan, uztaialaren 30ean trikiti gaupasa bikaina antolatu du Zubietako jai batzordeak. Santio jaien barnean bi talde izango dira Zubietako plazan. gaueko 23.00etan hasita **Alaitz eta Maider** bikote oiartzuarra eta bere taldearen doinuekin dantza egiteko aukera paregabea izango da, "Txanpon baten" truke, "amets bat"... Gero, jarraian **Etzakit** taldeak taldearen izen berdina duen beren lehen diskoa aurkeztuko dute. Goizaldera arte ezta trikitixarik faltako Zubietan.

Ondoren **Ttak** taldearen kontzertua eta segidan **Izotza** taldearekin dantzaldia.

**UZTAILAK 28 asteartea**

- Goiz osoan **hauren jokoak**. 18.00etan Mago baten xoua. 23.30etan **Akelarre** taldearekin dantzaldia

**UZTAILAK 28 asteartea**

- 14.00etan Zubietako **jubilatuen bazkaria**. 22.30etan **herri antzerkia** Zubietako plazan.

**OHARRAK**

- ✓ Uztaialaren 3tik aurrera **Jose Luis Zumeta** margolari usurbildarraren lanak ikusteko aukera Irisarrin duen **erakusketan**.
- ✓ Hernaniko Akarregi auzoan **etxebizitza bat dut salgai**. 2 logela, egongela, sukalde handia, komuna eta tras-telekua ditu. Prezioa: 9.250.00 pezeta. deitu 943-270408 telefonora eta kontestagailuan utzi mezua.
- ✓ Pisia alokatzen dut Usurbilen. Deitu 943-366485 telefonora



**BAZKIDE TXARTELA**

5000 PEZETA URTE OSORAKO

**Noaua!!**  
HAMAROSTEKARIA

Izena: \_\_\_\_\_  
1.Abizena: \_\_\_\_\_  
2.Abizena: \_\_\_\_\_  
Helbidea: \_\_\_\_\_  
Herria: \_\_\_\_\_  
Tfnoa: \_\_\_\_\_  
Kontu Korrontea (20 digito): \_\_\_\_\_

**414**

**bazkide ditu Noauak.**

**Zu ere egin zaitez**

**bazkide**



## XXII. Santixabel bertso paper lehiaketan lehen saria eskuratu zuten bertsoak.

Gaia: "Ni animalia bat naiz"

-1-

Usurbildarra naiz ni jaiotzez  
animali bat artista,  
txit garatuak ditut gainera  
bai usaia ta bai bista:  
Aidean burrun-burrun  
ez naiz joaten urrun,  
hasarratzen banaiz, txista!  
Etxean arrik maite ez dudan  
animali feminista

-5-

Karratu forma duten kaxetan  
aspaldi hontan naiz bizi,  
garai batean, enbor zulotan  
ohi ginen jaio ta hezi:  
Bizitza elkartuta,  
degu antolatuta,  
gure ume eta guzi,  
nahiz ta ez izan monarkizale,  
erregina det nagusi!

-2-

Oilo sarean antzeko edo  
hexagonotxo batzutan,  
gure jakia gordetzen degu  
udako bero sututan,  
alperra auro ito,  
bat gutxiago kito!  
lege hori etxe hontan!  
Udaran lana egin beharko  
neguan jatezkerotan.

-6-

Eguzkiaren lehenengo printzak  
goiz ihintzetan dizdizari...  
Gure hegoak dantzan jarrita  
eusten diogu lanari:  
Zelaian lorez lore,  
izango da gero`re,  
ezti eta argizari,  
hogeitamabost lan orduekin,  
ezin leike egin hori!

-3-

Injustizian bizi naizela  
askotan iruditzen zat,  
udazkenean, San Migeletan  
lapurreta degu behintzat:  
Bi ankeko piztiak,  
daramatza eztiak,  
ta azukrea guretzat,  
horrenbeste la egin da gero,  
etekina alperrentzat!

-7-

Maiatzaldean sagarrondotan,  
badegu borondatea,  
egiten degu: lore batetik  
frutura doan tartea,  
arrana emeari,  
ta emea ernari,  
lore ernaltzen artea,  
hemen egiten den sagardoan  
neuk ere badet parte!

-4-

Sahats lorea aurrenekoa  
badegu horren beharra,  
gero alkazi ta sagarrondoz  
hartutzen degu indarra,  
gaztaina ta ezkia,  
gozatzeko eztiak,  
errekazulotan larra,  
ta udazkena ondo badator,  
Andatzaldeko txilarra.

-8-


Erlea da bai nere izena  
antzemango didazute,  
egia esan, arrazoi gabe  
beldur asko naukazute:  
Dudalako eztena  
kaltegarri ez dena,  
medikuak esan dute!  
Txarrena ere ona daukat nik  
gehiago zer nahi dezute?





# Usurbil Autoak, S. C. L.

## Zerbitzu Ofiziala



*Zumartegi industrialdea  
Aitzearra kalea, 1*

*Telf.: 943 36 10 79*